



Hamasei emakumezko bikote, iaz baino bi gutxiago, ariko dira aurten nor baino nor trontza txapelketan. **BEÑAT PARRA**

Intxaurrondo Zaharreko pregoilaria alkate ohien artean hautatuko dute

Erramua Intxaurrondo Zaharreko kaleetan barrena zabalduko dute asteburuan, datorren asteko jaien aurrekari. Giroa piztuta, ohiko jarduera arrakastatsuak eta egitaraua aberastu duten berriak aukeran izango dituzte festazaleek hilaren 10etik 14ra bitartean.

📍 Maitane Aldanondo Gabilondo

Auzo askotako jaien hasiera antzekoa da: suziria, traka, musika; batzuetan, holi festen hauts koloretsua edota erraldoi eta buruhandien parte hartzea ere izaten da. Pregoa ere ohiko osagaia da. Intxaurrondo Zaharrean, balkoitik hitzak esateko ardura nork duen hauteskunde bidez aukeratzen dute, eta aurten, alkate ohien arteko lehia

izango da, ostegunean, Erdikoa tabernan, 17:00etatik 20:00etara.

Parodia horrekin auzotarren arreta lortu ohi dutela dio jai batzordeko kide Arritxu Larrañagak. «Txorakeria bat da, baina saltsa pixka bat sortzen da horren inguruan». Agintariak, gainera, zereginen artean, Intxaursaria emango dio jaien omenduari: Uliako Lore Baratzak. Hamar urte betetzeaz

gain, aitortzaren zergatia azaldu du Larrañagak: «Auzolanetik jaiotako proiektua da eta gurekin elkarlanean aritzen den eragile bat da».

Une horren aurretik, giroa pizten joateko eta auzotarrak parte egiteko, Intxaurrondoko festen ezaugarrietako bat den Erramu Eguna gauzatuko dute bihar, hilak 6. Auzoa hala apaintzeko ohitura galzorian zela-eta gehitu zuten 2023an, eta orain arte «nahiko txukun» atera da. Asmoa jai batzordeko kideen gain erori beharrean, auzotarrek, bereziki gaztetxoek, bere egitea da, «pertenentzia eta parte izate hori zabaltzen joateko».

Gune berriak

Ohikoez gain, berritasun ugari izango dira hilaren 14a arte luzatuko den egitarauan. Esaterako, musika eskaintza zabalduko dute ekitaldi eta guneei dagokienean. Hala, txosnaguneaz gain, parkeko kioskoan bertakoek antolatutako musika eskaintza egongo da, hala nola, poesia musikatu saioa asteazkenean, hilak 10; eta

Zulo Zahar elkartearen ere festak eta kontzertuak egingo dituzte.

Bestalde, Lamourousekin elkarlana abiatu dute. Egoitzako arduraduen erronketako bat erabiltzaileak auzoaren parte izatea da eta jai batzordera jo zuten. «Erabiltzaileen bizitza soziala mantentzea garrantzitsutzat dute, bereziki, haien artean bakardadeari aurre egiteko egoitzara joandakoak dituztelako», gogoratu du Larrañagak. Hala, pare bat jarduerak egingo dituzte egoitzan bertan, eta festei buruzko informazioa emango diete bai erabiltzaileei bai senideei. Jai batzordeak positibotzat jo du elkarlana eta datozen urteetan ikusiko dute zabal daitekeen.

Gaztetxoei begira

Era berean, gaztetxoei bereziki bideratutako zenbait jarduerak ere barneratu dituzte, guraso talde batek lagunduta. Ostiralean, auzoko historiari lotutako ihes gela aurrera eramango dute eta espazio propio bat izango dute afari herrikoian beraien artean «sareta eta elkar ezagut daitezen». Halaber, haien arteko herri kirolak egingo dituzte, hilaren 13an.

Lamourousekin elkarlana abiatu dute aurten, bertako erabiltzaileak ere festen eta auzoaren parte izan daitezten

Hain zuzen ere, herri kirolek piztu ohi dute intxaurrendotarren jakin-mina. Iaz, trontza txapelketa berreskuratu zuten, hamarkada lehenago ere egin zena, eta «oso ondo ateratu zen. Emakumezko hermeretzi bikote elkartu ziren eta giro oso polita izan zen». Oraingoan, hamasei izango dira lehian.

Aldarrikapenak ere bere tartea izango du larunbat arratsaldean. Herri kirolen ondoren, Palestinarekiko elkartasun argazkia egingo dute Intxaurrendotako kalean. «Egitaraua tartetxo batez geldituko dugu eta argazki potentetxo bat egin nahiko genuke». ●

EGITARAUA

LARUNBATA 6

Erramu eguna

11:30

Erramu josketa, plazan.

14:00

Bazkaria, Zulo Zaharren.

ASTEAZKENA 10

17:00

Haurrentzako zinema, Aitona-amonen etxean.

18:00

+55 poesia musikatua, parkeko kioskoan.

OSTEGUNA 11

11:00-13:00

Pintxo-pote musikatua, Lamourousen.

17:00-20:00

Alkatetzarako hauteskundeak, Erdikoa tabernan.

19:00

Kontzertua Zulo Zaharren: HI SU TA KE!

20:00

Jaien hasiera ekitaldia, Intxaurrendotako kalean:

- Pregoia.
- Intxaursariaren banaketa.
- Txupinazoa.
- *Festara!* auzoko abesbatzarekin.

21:00

Sardina jana.

Maraka Sound System, txosnagunean.

Zulo Zahar festa:

- Mojitoak.
- Kontzertuak: Therror 73, Pez Esperma eta Stay Firm.
- Linbo txapelketa.

OSTIRALA 12

Mozorro eguna

11:00-12:30

Bingoa, Lamourousen.

17:00

Haur ikuskizun parte hartzailea, txosnagunean: Zirika Zirkusen *Modernes*, Larrotxeneren eskutik.

17:00-19:30

Ihes gela eta askaria gaztetxoentzat (izen ematea jaien astean bertan, sare sozialen bidez).

18:00

Buruhandiak eta txokolate jatea, auzoan zehar.

Mozorro kalejira Irurak tabernatik hasita.

19:00

Disko-festa gaztetxoentzat, Letaman gaztetxean.



IKASTAROAK.TAILERRAK MARGOTU

ZERAMIKA ESTUDIOA GROSEN
JOSE MARIA SOROA 13





ERRESERBATU HEMEN ETA INFORMAZIO GEHIAGO

21:00

Herri afaria, plazan (8€, bertan 12€, gazte tiketa 6€).

23:00

Zezensuzkoa.

Kontzertuak: Itzal erromeria eta Revolutionary Brothers (Eira eta Karlos Nguemarekin).

00:00

Remember gaua, Zulo Zaharren.

LARUNBATA 13

11:30-13:30

Haur jolasak, plazan (0-5 urte artekoentzat, Intxhaurguneren eskutik):

- Aurpegi margotzea eta eskulanak.
- Mural margotzea.
- Kalejira.
- Jokoak, jokoak eta joko gehiago!

13:00

Marmitako txapelketa, Intxaurrondo kalean.

14:30

Herri bazkaria, txosnagunean (10€).

15:00-23:00

Bombadil Soun System, parkeko kioskoan.

17:00

Buruhandiak eta txokolate jana, auzoan zehar.

17:15

Gaztetxoan herri kirolak, Intxaurrondo kalean.

18:00

Trontza txapelketa, Intxaurrondo kalean.

Grafiti eta musika tailerra gaztetxoentzat, plazan.

19:00

Palestinarekin elkartasun argazkia, Intxaurrondo kalean.

19:30

Spaider Kumbia, Zulo Zaharren.

21:00

Parrillada, plazan: saltxitxak eta hanburgesak, 8€.

23:00

Zezensuzkoa.

23:30

Kontzertuak: Mostaza Karizia + EZEZEZ + La Fulana DJ-a.

IGANDEA 14

12:30

Meza hildako bazkideengatik, Salestarretan, Aitona-Amonen Etxeak antolatua.

13:30

Paella prestaketa herrikoia, Intxaurrondo kalean.

15:00

Paella jatea, txosnagunean (10€). Ondoren, jaietako txartelen zozketa.



16:30

Mus txapelketa, txosnagunean.

17:00

Ur entzierroa, plazan.

17:30

Apar festa, plazan.

18:30

Zinten jokoa, Intxaurrondo kalean, Artzak Orteok elkartaren eskutik.

19:00

Jaien amaiera ekitaldia, plazan:
- Alkatearen hitzaldia.
- Azken traka.



Ondo pasa jaietan!

Gabriel Aresti, 165, 20015 Donostia
943-89 95 16 - 012958aa@hezkuntza.net



Artatxiki Biogunea

Gora Intxaurrondo Zaharreko jaiak!

943-54 88 72 · 688-64 98 02
Intxaurrondo kalea, 54, behe 3, 20015 Donostia
artatxiki.biogunea@gmail.com